



Liskarrak **ematen** dira
neska-mutilen artean.



eman ≠ gertatu, izan...

- Liskarrak gertatzen dira neska-mutilen artean.
- Liskarrak izaten dira neska-mutilen artean.
 - * Liskarrak ematen dira neska-mutilen artean.
- Mendi honetan izan da gudua.
 - * Mendi honetan eman da gudua.



eman ≠ gertatu, izan...

- Bi berrikuntza teknologiko izan ziren XV. mendean.
 - * Bi berrikuntza teknologiko eman ziren XV. mendean.

- 2004an, bi elgorri-kasu izan ziren.
 - * 2004an, bi elgorri-kasu eman ziren.



eman ≠ gertatu, izan...

- Baliabide fisikoak gehitu eta hobetzeko egoera egokia dugu gaur egun.
 - *Baliabide fisikoak gehitu eta hobetzeko egoera egokia ematen da gaur egun.
- Istripu gutxi izan ziren atzo A8 autopistan.
- Istripu gutxi gertatu ziren atzo A8 autopistan.
 - *Istripu gutxi eman ziren atzo A8 autopistan.